

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoak 2016ko apirilaren 22an aurkeztuko du

Hiriko ikuspegiak **Parisko Eskola, 1900–1945**

Guggenheim Bilbao Museoak aurkeztuta *Hiriko ikuspegiak: Parisko Eskola, 1900–1945*

- Noiz: 2016ko apirilak 22 – 2016ko urriak 23
 - New Yorkeko Guggenheim Museoko Bildumatik datozen artelanen lehen erakusketa, 2014ko abenduan Guggenheim Bilbao Museoarekin eta Solomon R. Guggenheim Foundation-en arteko Kudeaketa-akordioa berritu zenetik
 - Komisarioa: Lauren Hinkson, New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museum-en Bildumen Arte Arduradun Laguntzailea
-
- Erakusketak arte modernoko mugimendu garrantzitsuenak aztertzen ditu, besteak beste Kubismoa, Orfismoa eta Surrealismoa, baita *l'École de Paris* deitutakoaren partaide izandako artistak ere.
 - Parisen, Picasso-k eta Braque-k pinturaren konbentzioak irauli zituzten, Delaunay-k kolore harmoniatsuen ikuspenak konposatu zituen, Kandinsky-k bide berriak ireki zituen abstrakzioan, eta Brancusi-k espazioan eskultura irudikatzeko modua berrasmatu zuen.
 - Erakusketan, joan den mendeko pintura eta eskultura batzuk agertzen dira, ondorengo artistek ondutakoak: Brancusi, Braque, Delaunay, Modigliani eta Picasso, besteak beste.

Guggenheim Bilbao Museoak *Hiriko ikuspegiak: Parisko Eskola, 1900–1945* aurkezten du, New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museum-en Bildumatik ekarritako 50 maisulan baino gehiagok osatutako erakusketa. 2016ko apirilaren 22tik urriaren 23ra ikusi ahal izango da. Hau da hurrengo hogeitazetarako Solomon R. Guggenheim Foundationekin (SRGFekin) 2014ko abenduan berritutako Kudeaketa-akordioan kokatzen den lehenengo erakusketa. Lankidetzaz hori sendotzen duten ekimenen artean, Solomon R. Guggenheim Museum-en konpromiso bat dago: bi urtean behin, bere Bildumako ezinbesteko artelanen inguruko erakusketa bat Guggenheim Bilbao Museoa aurkeztea.

Hiriko ikuspegiak: Parisko Eskola, 1900–1945 erakusketan, joan den mendeko pintura eta eskultura nabarmenetako batzuk agertzen dira, ondorengo artistek ondutakoak: Constantin Brancusi, Georges Braque, Robert Delaunay, Amedeo Modigliani eta Pablo Picasso, besteak beste.

Paris abangoardiaren hiriburua zen XX. mende hasieran. Mundu osoko artistak Argiaren Hirira joan ziren eta, bertan, arte eta literatura forma berriak sortu zituzten, hiriko bizitza osoki eraldatzen ari zen garapen ekonomiko, sozial eta teknologiko azkarrari erantzuteko. Parisen, Picassok eta Braquek pinturaren konbentzioak irauli zituzten, Delaunayk kolore harmoniatsuen ikuspenak konposatu zituen, Kandinskyk bide berriak ireki zituen abstrakzioan, eta Brancusik espazioan eskultura irudikatzeko modua berrasmatu zuen. Erakusketaren izenburuak Delaunayren serie piktoriko bat ekartzen digu gogora, eta agerian uzten du hiri modernoasorkuntza artistikorako inspirazio-iturri eta eszenategi bihurtu zela.

Aurkezpen hau XX. mendearen hasierako urteetatik abiatzen da, eta Bigarren Mundu Gerra amaitu arte luzatzen. Arte modernoaren mugimendu garrantzitsuenak aztertzen ditu, besteren artean, Kubismoa, Orfismoa eta Surrealismora, baita *l'École de Paris* (Parisko Eskola) deitutakoaren partaide izandako artistak ere. *Hiriko ikuspegiak: Parisko Eskola, 1900–1945* erakusketak hainbat maisulan biltzen ditu, adibidez, Pablo Picassoren *Le Moulin de la Galette* (1900), Amedeo Modigliani-ren *Biluzia* (*Nu*, 1917), edo Marc Chagall-en *Biolinista* (*Violiniste*, 1923–24). Askotariko estiloak eta ikuspegiak dauzkaten arren, erakusketa honetarako aukeratutako artistak estetika kontserbatzaileen kontra oldartu ziren hiri modernoko eguneroko bizitzari buruzko ikuspegia eraldatzeko asmoz.

Faxismoaren gorakadak eta Bigarren Mundu Gerran naziek Frantzia okupatzeak Parisko Eskola Parisko Eskola desagerrarazi zuten: Frantziako hiriburura aterpe politiko, espiritual eta sortzailea bila joandako artistek AEBera ihes egin baitzuten.

Ibilaldi bat erakusketan barrena

305. aretoa

Kubismoa XX. mendeko lehenengo hamarkadetan Parisen sortutako arte-berrikuntza garrantzitsuenetako bat da. Pinturari heltzeko modu iraultzaile hori Pablo Picassok eta Georges Braquek garatu zuten 1907tik 1914ra eta, era horretan, ikusizko arteen eta irudikapenaren izaeraren konbentzioak auzitan jarri zituzten. Gela honetan, artelan erabakigarriak ikus ditzakegu, Kubismo Analitikoa erakusten dutenak. Estilo intelektual horrek formaren eta espazioaren “analisi” edo deskonposizioa proposatzen du, artelan hauetan ikus daitekeen bezala: Braqueren *Pianoa eta mandora* (*Piano et mandore*, 1909–10), eta Picassoren *Botilak eta edalontziak* (*Bouteilles et verres*, 1911–12); horietan, korrante honek berezkoa duen kolore motelen sorta bat agertzen da. Margolan hauetan, objektuak identifika daitezkeen arren, horiek eta hondoa askotariko planoetan zatikatuta agertzen dira.

306. aretoa

Lehen Mundu Gerrako urteen inguruan, artistek askotariko helburuetarako baliatu zuten estetika kubista, adibidez, abstrakzio purua eta zientzia modernoa aztertzeko eta herri-tradizioen espiritualtasuna garaikidea denaren arlora ekartzeko. Robert Delaunayk hiriaren bizitza eta hiriko sinboloak adierazi zituen, adibidez, *Eiffel dorre gorria* artelanean (*La Tour rouge*, 1911–12). Optikaren arloan garai horretan izaten ari ziren aurrerapenei buruzko interesa ere erakutsi zuen geroagoko beste pintura abstraktu batzuetan, adibidez, *Zirkulu formak* (*Formes circulaires*, 1930).

Areto honetan, gainera, *Biolinista* (*Violiniste*, 1923) margolana ikus daiteke, errusiar jatorriko Marc Chagall artistak Parisera itzultzean pintatu zuena, Lehen Mundu Gerraren gehiengoa bere jatorrizko herrialdean bizi ondoren. Artelanak espazioaren zatikapen kubista eta errusiar zein judutar folkloreko elementuetan oinarritutako iruditeria koloretsua ezkontzen ditu. Era horretan, gaztaroko erlijio- eta komunitate-ospakizunetan sentitzen zuen nostalgia adierazi zuen.

Constantin Brancusi Parisen finkatu zen 1904n Errumaniatik, jaioterritik, lekualdatuta. Haren obrak XIX. mendeko eskulturaren zati handi batek daukan narrazio- eta antzezpen-asmoa baztertzen du eta, trukean, forma abstraktu zeharo sinplifikatuak baliatzen ditu, baita material biluziak, ornamentu gabeak, adibidez, zura edo metala. Brancusik inoiz ez zituen argitu bere artelanen iturriak edo esanahi zehatza, baina *Sorgina* eskultura (*La sorcière*, 1916–24), errumaniar kondairetako naturaz gaindiko pertsonaia batekin lotuta dago, antza.

307. aretoa

Lehen Mundu Gerraren ondoren, Paris berriz bihurtu zen kultura-ekoizpenaren gune nagusia. André Bretonek manifestu batez 1924n hasitako mugimendu surrealistarekin bat egin zuten artistak ere Parisko Eskolan sailkatzen dira. Sigmund Freuden teoriak jarraituz, idazle eta artista horiek erreprimitutako desioak, irudi onirikoak eta inkontzientearen elementu jakin batzuk elkarrekin josten eta horiei forma ematen saiatu ziren. Artista jakin batzuek, adibidez, Yves Tanguy-k, irudiak eta objektu bateraezinak gainjartzen zituzten, eta beste batzuek, berriz, Jean Arp-ek eta Joan Miró-k esaterako, automatismoa baliatu zuten, konposizio gabeko edo alde zureko gai jakinik gabeko marrazkiak eginez, adimen kontzienteari ihes egiteko. Arp eta Miróren eraginpean, Alexander Calder estatubatuar eskultoreak mugimenduan eta orekan oinarritutako kode bat sortu zuen, bere mugikorren eta alanbrezko eskulturen bidez: Romulo eta Remo, esate baterako (*Romulus et Rémus*, 1928).

Vasily Kandinskyk aurrerapen nabarmenak egin zituen pintura abstraktuan 1910 eta 1920ko hamarkadetan, Alemanian eta Errusian bizi zenean. Aldi honetako artelanetan, adibidez, *Pintura horia* (*La Toile jaune*, 1938) eta *Zirkuluaren inguruan* (*Autour du cercle*, 1940), Kandinskyk josi egiten ditu libre jokatzeko duten formak (bere lehenengo abstrakzioetan agertzen zirenen antzekoak) eta Bauhaus eskolako irakaslea zela ondutako forma geometriko eta biomorfoagoak.

Didaktika

Erakusketan, XX. mende hasierara garamatzan proiektu didaktiko bat dugu: Frantziako hiriburua testuinguru historiko, politiko, ekonomiko eta sozialean kokatzen duen “denboraren tunel” bat da, modernotasunaren eta abangoardiaren ikono baitzen garai hartan, eta, neurri batean, erakusketaren protagonista bat ere baita.

Edukiek XX. mende hasieran Parisen egindako lau erakusketa handiei erreparatzen diete: Erakusketa Unibertsala (1900), Dekorazioko Arteen Nazioarteko Erakusketa (1925), Arte Kolonialaren Erakusketa (1931) eta Bizi Modernoko Arteen eta Tekniken Nazioarteko Erakusketa (1937). Azalpen-testuak dauzkagu, baita horma-irudiko argazki handiak, bideoak eta audio-fitxategiak ere, puri-purian zen hiri honen, Argiaren Hiriaren, bizitasuna gogora ekartzeko.

Ondoren, jarduera osagarri batzuk zehazten dira:

Parisko Eskolari Buruzko ikastaroa

Museoak, Bilboko Elkarrekin Filarmonikoarekin lankidetzan, ikastaro bat emango du Museoko Lagunentzat soilik. Maiatza eta ekainean egingo diren sei saiotan, aldi berean, ibilaldi bat egingo da Parisko Eskolaren pinturan eta XX. mendeko lehen hamarkadetako musikan eta literaturan barrena.

Zinema klasiko frantseseko zikloa eta musika zuzenean

Maiatzak 7 eta 21, eta ekainak 4, larunbatak, zinema mutu frantseseko film onenen aukeraketa bat emango da gaez, besteak beste, Man Ray-ren *Les mystères du château de Dé* (1929), DJ ospetsuek jarritako bildumagile-diskoen zuzeneko musikaz lagunduta, Kataluniako Fimotecarekin elkarlanean, eta Visual Phonic-en ekoizpenarekin.

Partekatutako hausnarketak

Bisitariak Parisko Eskolari buruzko erakusketaren muntaketaren zirrikituak eta beste bitxikeria batzuk nabarmentzen dituzten bisita bereziak egin ditzakete:

- **Arte arduradunen ikuspegia**, Bilboko erakusketaren komisario Lucía Agirrek gidatuta, maiatzaren 4an.
- **Funtsezko kontzeptuak**, Marta Arzakek, Guggenheim Bilbao Museoaren Hezkuntza eta Interpretazio Zuzendariordeak, gidatutako bisita.

Azkenean, erakusketaren edukiari buruzko argibideak eskuratzeko, bisitariak **aretoetako orientatzaileengana** jo dezake, Museoak egunero 11etatik 14etara eskaintzen duen doako zerbitzua.

Portadako irudia

Marc Chagall

Soldadua edaten (Le soldat boit, 1911–12)

Olio-pintura mihise gainean

109,2 x 94,6 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, Solomon R. Guggenheim Sortze Bilduma 49.1211

© VEGAP, Bilbao, 2016

Argibideetarako:

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio eta Marketin Saila

Tel.: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.es

www.guggenheim-bilbao.es

Guggenheim Bilbao Museoari buruzko informazio guztia hemen eskuragarri: www.guggenheim-bilbao.es (prentsa-eremua).

Prentsa irudiak:
Hiriko ikuspegiak: Parisko Eskola, 1900–1945
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza. Oso garrantzitsua da irudien koloreen profila ez aldatzea. Mesedez, erabil ezazu beti jatorrizko profilen kolorea, eraldatu gabe.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektroniko bidez, media@guggenheim-bilbao.es

Jean Arp

Hazkundera (Croissance), 1938

Marmola

altuera: 80,3 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York 53.1359

© 2016 Artists Rights Society (ARS), New York / VG Bild-Kunst, Bonn



Constantin Brancusi

Erregearen erregea (Le roi des rois), ca. 1938

Haritz zura

1300 x 48,3 x 46 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York 56.1449

© VEGAP, Bilbao, 2016

Argazkia: David Heald © SRGF



Georges Braque

Biolina eta paleta (Violon et palette), 1909ko irailak 1

Olio-pintura mihise gainean

91,7 x 42,8 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York 54.1412

© VEGAP, Bilbao, 2016



Marc Chagall

Soldadua edaten (Le soldat boit), 1911–12

Olio-pintura mihise gainean

109,2 x 94,6 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, Solomon R. Guggenheim Sortze

Bilduma 49.1211

© VEGAP, Bilbao, 2016



Robert Delaunay

Eiffel dorre gorria (La tour rouge), 1911–12

Olio-pintura mihise gainean

125 x 90,3 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, Solomon R. Guggenheim Sortze Bilduma
46.1036

**Robert Delaunay**

Zirkulu formak (Formes circulaires), 1930

Olio-pintura mihise gainean

128,9 x 194,9 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, Solomon R. Guggenheim Sortze
Bilduma 49.1184

**Juan Gris**

Egunkaria eta fruta-ontzia (Journal et compotier), 1916ko martxoa

Olio-pintura mihise gainean

46 x 37,8 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, Dohaintza, Katherine S. Dreier-en legatua
53.1341

**Vasily Kandinsky**

Zirkuluaren inguruan (Autour du cercle), 1940ko maiatza–abuztua

Olio-pintura eta esmaltea mihise gainean

96,8 x 146 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, Solomon R. Guggenheim Sortze
Bilduma 49.1222
© VEGAP, Bilbao, 2016

**Fernand Léger**

Modelo biluzia tailerrean (Le modèle nu dans l'atelier), 1912–13

Olio-pintura marrega gainean

128,6 x 95,9 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, Solomon R. Guggenheim Sortze Bilduma
49.1193
© VEGAP, Bilbao, 2016

**Joan Miró**

Paisaia (Erbia) [Paysage (Le lièvre)], 1927ko udazkena

Olio-pintura mihise gainean

129,6 x 194,6 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York 57.1459
© 2016 Successió Miró / Artists Rights Society (ARS), New York / ADAGP, Paris



Amedeo Modigliani

Biluzia (Nu), 1917

Olio-pintura mihise gainean

73 x 116,7 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, Solomon R. Guggenheim Sortze Bilduma, Dohaintza 41.535



Piet Mondrian

Natura hila jengibre potoduna II (Stilleven met gemberpot II), 1911-12

Olio-pintura mihise gainean

91,5 x 120 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York L294.76

© 2007 Mondrian / Holtzman Trust



Pablo Picasso

Le Moulin de la Galette, 1900eko udazkena

Olio-pintura mihise gainean

88,2 x 115,5 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, Thannhauser Bilduma, Dohaintza, Justin K. Thannhauser 78.2514.34

© Sucesión Pablo Picasso. VEGAP, Bilbao, 2016



Pablo Picasso

Txanbila, pitxerra eta fruta-ontzia (Carafon, pot et compotier), 1909ko uda

Olio-pintura mihise gainean

71,8 x 64,6 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, Solomon R. Guggenheim Sortze Bilduma, Dohaintza 37.536

© Sucesión Pablo Picasso. VEGAP, Bilbao, 2016



Pablo Picasso


Mandolina eta gitarra (Mandoline et guitare), 1924

Hareadun olio-pintura mihise gainean

140,7 x 200,3 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York 53.1358

© Sucesión Pablo Picasso. VEGAP, Bilbao, 2016



Yves Tanguy

Hemen ez da mugimendua eteten (Là ne finit pas encore le mouvement), 1945

Olio-pintura mihise gainean

71,1 x 55,5 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, Legatua, Richard S. Zeisler, 2007.47

© 2016 Estate of Yves Tanguy. VEGAP, Bilbao, 2016

